



1. PROZEDURA-KONPROMISOAK

KONPROMISOA	ADIERAZLEA	URTEKO BETETZE - MAILA	HARTUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK
Edozein bide erabiliz jasotako kexei erantzutea, Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritzan sartzen denetik gehienez 15 egun balioduneko epean.	Hitzartutako epean erantzundako kexen %.		
Eskaera jasotzen denetik gehienez 3 egun balioduneko epean ebatzea Animalien Osasuna Ikuskatzeko espedienteak, betiere kontrol edo dokumentazio osagarriarik eskatzen ez bada.	Hitzartutako epean ebatzitako espedienteen %.		
Lehergailuak hornitzeko baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebatzea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.	Hitzartutako epean ebatzitako espedienteen %.		
Behin-behineko tiro-eremuetako tiro-lehiaketak baimentzeko espedienteak gehienez 15 egun balioduneko epean ebatzea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.	Hitzartutako epean ebatzitako espedienteen %.		
Eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun balioduneko epean Hezkuntza Arloan arreta jasotzeko aurretiko hitzordua esleitzea.	Hitzemandako epean esleitutako hitzorduen %.		
Unibertsitateaz kanpoko atzerriko tituluak homologatzeko eta baliozkotzeko eskabideak izapidetzea, eskaera jasotzen denetik gehienez 30 egun balioduneko epean.	Hitzartutako epean izapidetutako espedienteen %.		
Atzerrian eragina izan nahi dituzten unibertsitate-ikasketa ofizialei dagozkien dokumentu akademikoetan sinadurak aitortzeko eskaerak gehienez 24 orduko epean ebatzea, eskaera eskatutako dokumentazio guztiarekin formalizatzen denetik zenbatzen hasita.	Hitzartutako epean ebatzitako espedienteen %.		





KONPROMISOA	ADIERAZLEA	URTEKO BETETZE - MAILA	HARTUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK
Larrialdi-egoeren edo hondamendi-egoeren ondoriozko kalteengatiko laguntzak eta dirulaguntzak eskatzeko espedienteak bideratzea eta ebaztea, gehienez 120 egun balioduneko epean, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, betiere izapideak egiteko behar den dokumentazio guztia izanez gero.	Hitzartutako epean izapidetutako espedienteen %.		
Itzulitako espainiarren aparteko beharrizan-egoerei erantzuteko laguntzen txostena egitea eta espedientea bidaltzea (1493/2007 Errege Dekretua), eskaera jasotzen denetik gehienez ere 4 egun balioduneko epean ebazteko.	Agindutako epean egindako txostenen eta bidalitako espedienteen %.		
Itzulitako emigranteen ziurtagiriak gehienez 4 egun balioduneko epean ematea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta izapidetzeko behar den dokumentazio guztia badago.	Hitzemandako epean emandako ziurtagirien %.		





2. INFORMAZIO-KONPROMISOAK

KONPROMISOA	ADIERAZLEA	URTEKO BETETZE - MAILA	HARTUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK
Informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei Herritarrentzako Informazio eta Arreta Bulegoan/Erregistro Arloko Laguntza Bulegoan erantzutea, posta jasotzen denetik 2 egun balioduneko epean.	Hitzartutako epean erantzundako mezu elektronikoen %.		

